

Eskubaloia

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



MINI ESKUBALOIA


1. JOKO EREMUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1. Joko eremuaren forma eta neurriak.

Joko eremua 20 m luze eta 13 m zabaleko laukizuzen bat da.

a) Oinarrizko seinalizazioa.

- Jaurtiketa librearen marra atetik 7 metrora dago.
- Penalti puntua atetik 6 metrora dago.
- Ateko arearen marra atetik 5 metrora dago.



B Benjaminak
A Alebinak
I Infantilak
G Gizonezkoak
E
Emakumezkoak

Eskubaloia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

1.2. Ateen forma eta neurriak.


a) *Benjaminetan:*

Barruko neurriak 3 m zabal eta 1,60 m altu dira.

b) *Alebinetan:*

Barruko neurriak 3 m zabal eta 1,80 m altu dira.

Bi langeten artean sarea jarri behar da ustezko golak saihesteko. Baloiak arauzko langetaren gainetik joz gero, ateko sakea izango da.



2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1. Taldeen osaera.

a) *Jokalariak aktan.*

Talde bakoitzak gutxienez 6 jokalaria eduki beharko ditu eta partidako aktan izena eman behar dute.

b) *Joko eremuko jokalaria.*

Joko eremuan, eta aldi berean, talde bakoitzeko gehienez ere 5 jokalaria egongo dira (jokalekuko 4 jokalaria eta atezaina).

2.2. Jokalariak txandatzea eta aldatzea.

a) Aktan izena eman duten jokalaria guztiak gutxienez zati oso bat jokatu behar dute, lehenengo hiru zatitan.

b) Lehenengo hiru zatitan ezin da aldaketarik egin, lesio edo istripurik gertatu ezean.

c) Laugarren zatian taldeen osaera librea da eta entrenatzaileak nahi beste aldaketa egin ditzake.

d) Zati bakoitzean atezaina diferentea izango da, nahitaez.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

- Partidak 10 minutuko lau denbora ditu eta denboren artean bi minutuko atsedenaldia egiten da.

4. MATERIALA.

a) *Baloia*

- Benjaminetan:

Baloiak 44 zentimetroko zirkunferentzia du.

- Alebinetan:

Baloiak 48 zentimetroko zirkunferentzia du.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Ateko area.

Atezaina bakarrik egon daiteke ateko arean, beraz, jokalekuko jokalariren batek gorputzeko

Eskubaloia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

edozein atalekin ateko area ukituz gero, baita ateko arearen marra ere, area barruan sartu dela ulertuko da eta zigortu egingo da.

5.2. Nola jokatu daiteke baloia.

Onartzen da:

- a) Balloia jaurti, kolpatu, bultzatu, ukabilez jo eta gelditzea edo esku, beso, buru, soin, izter eta belauen laguntzaz balloia hartzea.
- b) Balloia 3 segundoz gehienez edukitzea, nahiz eskuetan nahiz lurrian dagoela.
- c) 3 urrats egitea gehienez, balloia eskuetan dela. Urratsa izango da honakoetan:
 - Bi oinak lurrian dituela, jokalaria batek oin bat jaso eta berriz lurrian jartzen duenean edota oina jaso edo mugitzen duenean.
 - Oin bat lurrian duela, jokalaria batek balloia hartu eta jarraian beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrian dagoen jokalaria batek oin bakarrarekin lurra ukitu eta oin beraren gainean berriz jauzi egiten duenean, edo beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrian dagoen jokalaria batek bi oinak batera lurrian jarri eta oin bat jaso eta berriz ere lurrian jartzen duenean edo oina mugitzen duenean.

5.3. Aurkariarekiko portaera.

Onartzen da:

- a) Balloia eskuratzeko besoak eta eskuak erabiltzea.
- b) Aurkariari balloia kentzea ahurraz eta edozein aldetatik.
- c) Aurkariari bidea oztopatzea soinarekin, balloia ez eduki arren.

5.4. Alboko sarea.

Alboko sarea ateratzen duen jokalaria alboko marra zapaldu behar du oin batekin balloia jaurti bitartean.

5.5. Ateko sarea.

Ateko sarea txilibitua jo gabe eta ateko areatik egin behar da.

5.6. Jaurtiketa libre.

Jaurtiketa libre txilibitua jo gabe eta, nagusiki, falta gertatu den lekutik egiten da.

Falta ateko arearen marra eta jaurtiketa librearen marra artean gertatu bada, erasoan ari den taldearen aldeko jaurtiketa libre jaurtiketa libreko marretatik egingo da, falta puntutik gertuen dagoen lekutik, eta sarea egiten den bitartean erasoan ari diren jokalariek ezingo dute marren arteko eremuan egon.

5.7. 6ko marrako jaurtiketa.

6ko marrako jaurtiketa zuzenean ate aldera egin behar da, arbitroak txilibitua jo eta ondorengo 3 segundotan.

Jaurtiketa egiten den bitartean, jaurtitzaila bakarrik egon daiteke ateko arearen eta jaurtiketa librearen marren artean. Jokalaria horrek ez du 6 metroko marra ukitu edo gainditu behar balloia bere eskutik atera aurretik.

6ko marrako jaurtiketaren ondoren ezingo da balloia berriz jokatu ez badu atezaina edo atea ukitzen.

5.8. Jaurtiketak.

Erdiko eta alboko sarea, jaurtiketa libre edo 6ko marrako jaurtiketa egiten denean, jaurtitzailak lurretik altxa gabe eduki behar du oinetako bat, bestea, berriz, altxa edo lurrian jarri dezake zenbaitetan.

Baliozko gola lortu daiteke zuzenean jaurtiz edozein sarea edo jaurtiketatik.

5.9. Defentsa motak.

Debekatuta dago defentsa mistoak, hau da, jokalaria bakarra defenditzea, eta defentsa itxiak egitea. Banakako defentsak eta defentsa irekiak bakarrik onartzen dira (2:2).

B Benjaminak
A Alebinak
I Infantilak
G Gizonezkoak
E
Emakumezkoak

Eskubaloia

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



5.10. Geldotasuna.

Maila hauetan arau hau ez da kontutan edukiko.

5.11. Itsasgarrien erabilera.

Gutziz debekatuta dago baloira egokitzeko edozein gai erabiltzea.

5.12. Partidaren azken emaitza.

Gol bakoitzaren balioa batekoa da. Denbora bakoitza partida bat bailitza hartzen da, eta talde bakoitzak sartzen duen gol kopuruaren arabera erabakitzen da. Denbora bakoitzeko irabazleari puntu bat ematen zaio. Bi taldeen artean gol berdinketa gertatzen bada, denbora horren balioa 0 izango da. Horrenbestez, partidaren azken emaitza 0-0, 1-0, 1-1 edo 2-0 bakarrik izan daiteke, eta ez da kontuan hartuko partida osoan guztira sartu edo jaso diren golen kopurua.



ESKUBALOIA

1. JOKO EREMUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

1.1. Joko eremuaren forma eta neurriak.

Joko eremua 40 m luze eta 20 m zabaleko laukizuzen bat da; alde luzeenei "alboko marra" deitzen zaie eta motzenei "ateko marra".

Joko eremua bi zatitan banatuta dago ateko marren paraleloan dagoen erdiko marra baten bidez, eta 2 ateko area daude.

a) Oinarrizko seinalizazioa.

- "Jaurtiketa librearen marra" marra eten baten bidez markatzen da, 15na cm-ko trazuak eta hutsarteak tartekatuz. Marra hori 3 metroko zuzena izango da, atetik 9 metrora dagoena ateko marraren paraleloan, eta mutur bakoitza 9 metroko erradioa duen zirkulu laurden batez osatzen da. Zirkulu horren erdia ateko zutoin bakoitzaren barrualdeko atzeko ertza da.
- **Penalti puntua** metro bateko luzera duen marra batez adierazten da eta atearren erdiaren parean ateko marraren paraleloan margotzen da ateko marraren kanpoko aldetik 7 metrora.
- **Ateko arearen marra** 3 metroko marra zuzen baten bidez markatzen da ateko marratik 6 metrora, mutur bakoitza 6 metroko erradioa duen zirkulu laurden batez osatzen da. Zirkulu horren erdia ateko zutoin bakoitzaren barrualdeko atzeko ertza da.

Sarea

Ateko marra

Gol marra

Atezainaren marra

Ateko arearen marra

7ko marra

Jaurtiketa librearen marra


Alboko marra

Erdiko marra

Aldaketen marra

Ohar hartzailearen
kronometratazailearen
mahaia

Ordezko jokalarien aulkia




Eskubaloia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

1.2. Ateen forma eta neurriak

Ate bakoitza ateko marran erdiratuta kokatu behar da. Ondo finkatuta egon behar dute. Barruko neurriak 2 m altu eta 3 m zabal dira.



2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

2.1. Taldeen osaera.

- Jokalariak aktan.** Talde bakoitzak gutxienez 7 jokalarik eta gehienez 14 izango ditu, eta partidako aktan izena eman behar dute. Talde bakoitzak nahitaez atezain batekin jokatu behar du. Atezain lanetan aritu den jokalaria jokalekuko jokalarik gisa aritu daiteke elastikoa aldatu ondoren, era berean jokalekuko jokalarik bat atezain gisa aritu daiteke elastikoa aldatu ostean.
- Joko eremuko jokalariek.** Joko eremuan, eta aldi berean, talde bakoitzeko gehienez ere 7 jokalarik egongo dira (jokalekuko 6 jokalarik eta atezaina). Gainerako jokalariek ordezkotzat dira. Partida hasteko eta bukaera arte jarraitu ahal izateko gutxienez talde bakoitzeko 5 jokalarik egongo dira.

2.2. Jokalariek aldatzea.

Jokalariek aldatzea honako hiru kasu hautan bakarrik egin daitezke:

- Aktan izena eman duten jokalariek guztiek gutxienez zati oso bat jokatu behar dute, lehenengo bi zatitan.
- Lehenengo bi zatitan ezin da aldatetarik egin, lesio edo istripurik gertatu ezean.
- Hirugarren zatian taldeen osaera librea da eta entrenatzaileak nahi beste aldatzea egin ditzake lehenengo kasua ematen denean.

3. PARTIDEN IRAUPENA.

Partidak 3 denbora ditu (15 '+15+20') eta denboren artean 3 minutuko atsedenaldia egiten da.

4. MATERIALA.

Baloien zirkunferentzia 50 cm-koa izango da emakumezkoen mailan eta 52 cm-koa gizonezkoen mailan. Pisua ez da 315 gramotik gorakoa izango.

5. ARAU TEKNIKOAK.

5.1. Ateko area.

Atezain bakarrik egon daiteke ateko arean. Jokalekuko jokalariek batek gorputzeko edozein atalekin ateko area ukituz gero, baita ateko arearen marra ere, area barruan sartu dela ulertuko da eta zigortu egingo da.

Eskubaloia



ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK

5.2. Nola jokatu daiteke baloia.

Onartzen da:

- a) Balloia jaurti, kolpatu, bultzatu, ukabilez jo eta gelditzea edo esku, beso, buru, soin, izter eta belaunen laguntzaz balloia hartzea.
- b) Balloia 3 segundoz gehienez edukitzea, nahiz eskuetan nahiz lurrean dagoela.
- c) 3 urrats egitea gehienez, balloia eskuetan dela. Urratsa izango da honakoetan:
 - Bi oinak lurrean dituela, jokalaria batek oin bat jaso eta berriz lurrean jartzen duenean edota oina jaso edo mugitzen duenean.
 - Oin bat lurrean duela, jokalaria batek balloia hartu eta jarraian beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek oin bakarrarekin lurra ukitu eta oin beraren gainean berriz jauzi egiten duenean, edo beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
 - Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek bi oinak batera lurrean jarri eta oin bat jaso eta berriz ere lurrean jartzen duenean edo oina mugitzen duenean.

5.3. Aurkariarekiko portaera.

Onartzen da:

- a) Balloia eskuratzeko besoak eta eskuak erabiltzea.
- b) Aurkariari balloia kentzea ahurraz eta edozein aldetatik.
- c) Aurkariari bidea oztopatzea soinarekin, balloia ez eduki arren.

5.4. Alboko sakea.

Alboko sakea ateratzen duen jokalaria alboko marra zapaldu behar du oin batekin balloia jaurti bitartean.

5.5. Ateko sakea.

Ateko sakea txilibitua jo gabe eta ateko areatik egin behar da.

5.6. Jaurtiketa librea.

Jaurtiketa librea txilibitua jo gabe eta, nagusiki, falta gertatu den lekutik egiten da. Falta ateko arearen marra eta jaurtiketa librearen marra artean gertatu bada, erasoan ari den taldearen aldeko jaurtiketa librea jaurtiketa libreko marratik egingo da, falta puntutik gertuen dagoen lekutik, eta sakea egiten den bitartean erasoan ari diren jokalariek ezingo dute marren arteko eremuan egon.

5.7. 7ko marrako jaurtiketa.

7ko marrako jaurtiketa zuzenean ate aldera egin behar da, arbitroak txilibitua jo eta ondorengo 3 segundotan.

Jaurtiketa egiten den bitartean, jaurtitzaila bakarrik egon daiteke ateko arearen eta jaurtiketa librearen marren artean. Jokalari horrek ez du 7 metroko marra ukitu edo gainditu behar balloia bere eskutik atera aurretik.

7ko marrako jaurtiketaren ondoren ezingo da balloia berriz jokatu ez badu atezaina edo atea ukitzen.

5.8. Jaurtiketak.

Erdiko eta alboko sakea, jaurtiketa librea edo 7ko marrako jaurtiketa egiten denean, jaurtitzailak lurretik altxa gabe eduki behar du oinetako bat, bestea, berriz, altxa edo lurrean jarri dezake zenbaitetan.

Baliozko gola lortu daiteke zuzenean jaurtiz edozein sake edo jaurtiketatik.

5.9. Defentsa motak.

Debekatuta dago defentsa mistoak, hau da, etengabe jokalaria bat defenditzea, eta defentsa itxiak egitea.

Banakako defentsak eta defentsa irekiak bakarrik onartzen dira (3:3).

B Benjaminak
A Alebinak
I Infantilak
G Gizonezkoak
E
Emakumezkoak

Eskubaloia

ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



5.10. Geldotasuna.

Maila honetan arau hau ez da kontutan edukiko

5.11. Itsasgarrien erabilera.

Guztiz debekatuta dago baloira egokitzeko edozein gai erabiltzea.

5.12. Partidaren azken emaitza.

Gol bakoitzaren balioa batekoa da. Talde bakoitzak partidaren zehar sartzen dituen gol guztiak kontuan hartzen dira. Azken emaitza bi taldeen arteko golen aldeak erabakiko du.